

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Universidad del País Vasco**

**Euskal Herriko Unibertsitatea**

**2007**



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

I. SARRERA .....	5
II. IRITZIA .....	6
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	6
II.2 Kontuei buruzko iritzia .....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA	
PROZEDUREN GAINENKO IRIZPENAK .....	10
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	10
III.2 Langileak .....	14
III.3 Izaera zientifiko, tekniko eta artistikoa duten lanak .....	15
III.4 Administrazio kontratazioa .....	18
III.5 Berezko tituluak .....	19
IV. FINANTZAREN ANALISIA ETA BILAKAERA AKADEMIKO	
ETA IRAKASKUNTZAKO .....	20
V. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN URTEKO KONTUAK .....	24
V.1 Aurrekontuko kontularitzako egoerak .....	24
V.2 Ekonomia-txostenaren eranskinean barne hartutako ondare kontuak ....	26
I. INTRODUCCIÓN .....	27
II. OPINIÓN .....	28
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	28
II.2 Opinión sobre las Cuentas .....	30
III. CONSIDERACIONES SOBRE EL SISTEMA DE CONTROL	
INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....	32
III.1 Presupuesto y contabilidad .....	32
III.2 Personal .....	36
III.3 Trabajos de carácter científico, técnico y artístico .....	37
III.4 Contratación administrativa .....	40
III.5 Títulos propios .....	41



<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO Y EVOLUCIÓN ACADÉMICA Y DOCENTE.....</b>	<b>43</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO .....</b>	<b>47</b>
V.1 Estados contables presupuestarios.....	47
V.2 Cuentas patrimoniales incluidas en el anexo del informe económico .....	49
<b>ANEXOS .....</b>	<b>51</b>
A.1 Aspectos generales.....	51
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias .....	52
A.3 Gastos de personal .....	54
A.4 Gastos de funcionamiento.....	61
A.5 Inmovilizado e inversiones reales.....	61
A.6 Tasas y otros ingresos .....	63
A.7 Transferencias corrientes y de capital recibidas .....	65
A.8 Variación de activos financieros .....	69
A.9 Variación de pasivos financieros.....	69
A.10 Deudores.....	70
A.11 Operaciones extrapresupuestarias.....	71
A.12 Tesorería.....	73
A.13 Conciliación resultado presupuestario-patrimonial.....	73
A.14 Análisis de la contratación administrativa.....	74
<b>ALEGAZIOAK .....</b>	<b>77</b>
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>85</b>

Vitoria-Gasteiz, 2009ko irailaren 22a

Vitoria-Gasteiz, 22 de septiembre de 2009



## I. SARRERA

Euskal Herriko Unibertsitatearen (aurrerantzean EHU) 2007ko ekitaldiko fiskalizazioa, HKEEren Lanerako Planean jaso, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legearen arabera burutu da.

Txosten honek honako alderdiok besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Legezkotasun, aurrekontu, langileria eta administrazio kontratazioaren ataletan.
- Kontularitzakoak: EHUren kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Unibertsitatearen azterketa finantzarioa eta bilakaera akademiko eta irakaskuntzako.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, 2007ko ekitaldian azaleratutako hutsak “Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

Lan hau gauzatu ahal izateko, 2007ko ekitaldiaren kontularitzako aurrekontu egoerei buruzko kanpoko auditoria txostena hartu da abiaburu eta egoki iritzitako proba osagarriak egin dira.

EHUk ondoko fundazioetan gehiengo partaidetzarekin esku hartzen du: Udako Ikastaroak Fundazioa eta Medikuntza eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa Fundazioa. Berebat, % 50arekin sortze kapitalean eta Unibertsitatea-Enpresa Ikerketa Fundazioaren patronatuan parte hartzen du (Euskoiker Fundazioa).



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### Aurrekontua

1. EHUK atxikitako finantzaketadun gastuetarako kredituak gaitzearen eta geldikinak txertatzearen ondorioz guztira 120.258 mila euro egin dituzten aurrekontuko aldaketak erregistratu ditu, dagokion onespena inongo organo eskudunek eman ez diela. Kopuru honetatik, 61.390 mila euro kreditu geldikinen txertaketari dagozkio, gerora Gizarte Kontseiluak 2007ko urriaren 17an, 2006ko ekitaldiaren Txosten Ekonomikoa onetsi zuenean onartu zirenak.

#### Langileria (Ikus A.3)

2. EHUK Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera irakasle eta ikertzaileen Lanpostuen Zerrenda igorri du, kostua baimendu ahal izateko eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman aurretiko urrats modura, EHUren Estatutuen 33.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki (aurrerantzean Estatuak). Txosten hau idatzi dugun datan Eusko Jaurlaritzak ez du baimen hori eman eta honenbestez, ezin argitara eman izan da irakasle eta ikertzaileen Lanpostuen Zerrenda, Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 99.5 artikulua xedatutakoa urratuz.
3. EHUK 2007ko ekitaldian 6.128 mila euro ordaindu zituen osagarrien eta ordainsarien parekatze kontzeptuan, unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan aurreikusi gabe daudenak.

#### Kontratazioa (ikus A.14)

4. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitutako lau kontratutan, 376 mila euroko zenbatekoa egin dutenak, eskaintza bakarra eskatu da eta horrek, okerrez, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu BATERATUAREN 92. artikuluan aurreikusitako lehia eskakizuna mugatu du (aurrerantzean, APKLTB).
5. "EHUren 2006-2011ko inbertsioen urteanitzeko proiektu eta obren kudeaketa osorako zerbitzuak" kontratazio espedientean, 5.335 mila euroko gutxi gorabeherako aurrekontua duena eta 2007ko otsailaren 13an esleitu zena, ez da arkitektura eta obra zerbitzuaren txostena egin, kontratuak ase asmo dituen beharrezko aurre egiteko giza eta gauzako baliabideen egokitasun eza edo horiek ez erabiltzearen komenigarritasuna justifikatuko duena. Honez gainera, hainbat akats azaleratu dira, bai xedea zehazteari buruzkoak (kontrataturiko zerbitzuak proiektu orientagarrien gainekoak dira, ez dira bereizten abian dauden proiektuak eta hasteko daudenak eta ez da garbi uzten EHUren arkitektura eta lanen zerbitzua indartzeko kontratatzen dela), bai kontratuaren prezioari buruzkoak (kontrataturiko obraren exekuzio materialeko proiektuaren zenbatekoaren ehuneko batera erreferentziatua eta ez exekuzio materialeko aleko prezioetara). Bi akats



horiek, APKLTBren 13. eta 14. artikuluetan xedatutakoa eragiteaz gain, kontratuaren kontrol eta jarraipen egokia egitea eragozten dute.

Kontratuaren exekuzioan zehar 307 mila euro egin duten zerbitzu berriak barne hartu dira, horretarako berariazko onespenerik izan gabe; horrek APKLTBren 101. artikuluan aurreikusitako kontratuen aldaketarako araubidea urratzen du eta Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 102. artikulua (aurrerantzean APKLEO). Bestetik eta finantzaketari dagokionez, ez da kontratuaren exekuzio erritmorra egokitzen, APKLTBren 14. artikuluan xedatutakoa urratuz.

6. EHUK aldez aurreko izapide bidez eta kontratazio espediente bakar batean, 2007ko azaroaren 3an DOUEn honako eraikin berri hauek eraikitzeke proiektuen idazkera eta lanen exekuzioaren lizitazioan esku hartu zuen, 51.150 mila euroko aurrekontuarekin: Leioan Magisteritza U.E., Meatze eta Herri Lanetarako Ingeniaritza Teknikoaren U.E. eta Bilboko Industri Ingeniaritza Teknikoaren U.E.” Kontratu honetan eta prezioaren atal modura Deustuko Magisteritza U.E. inguruan kokatutako lursailen esleipena barne hartzen da, 20.310 mila euroko balioa dutenak, Bilboko Udalak bizilekuetarako birkalifikatu ondoren, 2006ko abenduaren 19an EHUrekin izenpetutako hitzarmen bat beteaz. Kontratua 2008ko apirilaren 11n lehiatu zuen lizitatzailerak bakarrari esleitu zitzaion 51.145 mila euroan eta 28 hilabeteko exekuzio epearekin. Espedientea aztertu ondoren, honako alderdi hauek gailendu dira:
  - Proiektuaren idazkera eta obren exekuzioa batera lehiatzea salbuespena da eta behar hainbat justifikatu behar da espedientean APKLTBren 125. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Arkitekto Eusko Nafarren Elkargo Ofizialak EHUK ezetsitako berraztertzeke errekurtsio baten ondoren administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu zuen lizitazioaren onespeneraren aurka, izan ere, obren proiektu eta exekuzioa batera lehiatzea ez zitzaiela APKLTBren aurreikuspenei egokitzen iritzi baitzion. Txosten hau idatzi den datan errekurtsioa ebazteke dago.
  - Bestetik, kontratuaren lizitazioa San Mamesko Ekipamendu-Arearen Plan Bereziaren hirigintzake garapena amaitu gabe gauzatu zen eta zehaztu gabe zeudela, beraz, EHUK eraiki asmo zituen eraikin berrien lursaileri zegozkien aprobetxamenduak, Meatze eta Herri Lanetarako Ingeniaritza Teknikoaren U.E. eta Bilboko Industri Ingeniaritza Teknikoaren U.E., alegia. Egoera honek kontratuaren exekuzioan atzerapena ekarri du eta ez dago erasota EHUK kontratua aldatzeke dagozkion jarduerak gauzatu dituenik.
  - Administrazio klausulen pleguak agintzen du eskaintza eraikuntzaren exekuzio materialeke aurrekontuaren alkantze ekonomikoan berrikusioke dela, eskaintake programazioan zehaztutake obren hasiera datatik egiaz obrak hasten direnera arte igarotake denbora aintzat hartuta. Obrak 2008ko apirilaren 11n esleitu ziren, bi hilabeteko epea emanik proiektua aurkeztu eta lizentziak izapidetzeke eta 26 hilabete obrak exekutatzeko. Magisteritzake U.E. lanei 2009ko maiatzean ekin zaie; ordea, Meatze eta Herri Lanetarako Ingeniaritza Teknikoaren U.E. eta Bilboko Industri Ingeniaritza Teknikoaren U.E.koak hasi gabe zeuden txosten hau onetsi den datan.



7. “EHUren Leioako Campuseko Aula Magnarako Ekipamendua” izeneko espedientean, 1.993 mila euroko zenbatekoarekin esleitutakoan, 64 mila euroko kontratu aldaketa onetsi da exekuzio epea iraungita zegoela eta eskuratze akta izenpetua; horrek APKLTBren 101. artikuluan eta APKLEOren 102. artikuluan aurreikusitako kontratuak aldatzeko araubidea urratzen du.
8. EHUK APKLTBn aurreikusitako kontratuen esleipen prozedurak saihestu ditu ondoko gastu hauek egiterakoan: sei obra 511 mila eurokoak eta bost laguntza tekniko guztira 208 mila eurokoak.

Epaitegi honen ustetan, aurreko paragrafoetan aipatutako lege hausteak alde batera, EHUK zuzentasunez bete du 2007ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

## II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. EHUK 2007ko ekitaldiaren ondare kontabilitatea Txosten Ekonomikoaren eranskin modura aurkeztu du (txosten honen bitartez aitortzen ditu Unibertsitateak kontuak eta Gizarte Kontseiluak onesten du). EHUren lursailak eta eraikinak, ibilgetuko idazpuruaren osagai nagusi eta aldi berean Egoera Balantzeko aktiboaren % 89 egiten duena, tasazio enpresa batek balioztatu ditu eta horretarako “berriz erosteko kostuaren balio garbia” 2007ko abenduaren 31n erabili du. Gogoan hartuta EHUren ia ondasun gehienak transferitu egin zituela Eusko Jaurlaritzak abenduaren 27ko 489/1994 Dekretu bidez, orduan inongo balorazio ekonomikorik ez zegoela eta horien gainean gerora inbertsioak egin direla, zuzena irizten diogu jokamolde honi. Nolanahi dela ere, EHUK transferitu gabeko ondasunetan gerora egin dituen inbertsio guztiak kostu balioarekin balioztatu behar ziratekeen ibilgetura txertatzeko unean eta balio-galera urtero erregistratu.
2. EHUren Kontuek ez dituzte geroko ekitaldietarako hitzartutako inbertsioak barne hartzen, 9.079 mila euroko zenbatekoarekin (ikus A.14).
3. Berariazko Geldikinean EHUK berak halako izaera aitortzen ez dien programak barne hartzea, Geldikin horren atal diren aurrekontuko aplikazio ugariak ez berrikustea, erroreak azaleratu diren kasuetan zuzenketa neurriak ez hartzea eta izaera zientifikoa duten lanak egiteko sinatutako kontratuen egoeraren gaineko kontrolik eza dira nagusiki EHUK ez duela Berariazko Geldikina egoki kontrolatzen ondorioztatzeko arrazoiak eta honenbestez, ez dezakegu horren zuzentasunari buruzko iritzirik eman, ez eta, ondorioz, 2007ko abenduaren 31n Gastu Orokorretarako Geldikinaren gainekorik ere.
4. 2005eko abenduaren 22an, Gobernu Kontseiluak EHU Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundera –ITZARRIra- txertatzeko beharrezko ekintzak abian jartzeko erabakia hartu zuen, gerora, EHUren langileria bazkide oso modura barne hartzeko. Berebat, eta integrazio data alde batera, ekarpen ekonomikoak aurrekontuko erabilgarritasunen arabera egitea erabaki zuen, 2008ko ekitaldirako bazkide bakoitzarentzat metatutako zenbatekoa une horretan Euskal Autonomia Erkidegoko



langileriak zuenarekin berdinduko zela bermatuz. - 2004, 2005, 2006 eta 2007ko ekitaldietan Eusko Jaurlaritzaren langileentzat emandako kopuruek ordainsarien guztizkoaren gainean % 0,5, % 1, % 1,5 eta % 2 egiten dute. EHUK ez du Gobernu Kontseiluak adostutako ekarpenen konpromiso honek eragin dezakeen kostuaren balioespenik egin, 2007ko abenduaren 31ko Berariazko Geldikinak 5.471 mila euroko zenbatekoa barne hartzen duela, baina kalkulua egiteko oinarriaren euskarririk batere izan gabe. Amaitzeko esan behar da ITZARRIko estatutuek ez dutela aurreikusten EHUKo langileak Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakunde honetako kide izan daitezkeela eta honenbestez, erabaki hau ezin gauzatu izan da, ITZARRIk ez baitu baimenik eman EHU txertatzeko.

5. EHUren metatutako emaitza 2007ko abenduaren 31n 5.948 mila euroan murriztu behar da, ondoko doiketa hauen ondorioz:

KONTZEPTUA	Mila euro	
	Eranskina	Zenbatekoa
Erregistratzeko dauden ordainsari osagarriak .....	A.3	(32.438)
Erregistratzeko dauden ordainsari osagarrien EJren finantzaketa .....	A.3	23.575
Prezio publikoetan zorpetze irizpidearen ezarpena .....	A.6	9.047
Sarreretan oker erregistratutako maileguak .....	A.9	(2.023)
Kobratzeko dauden zordunak, euskarritu gabeak .....	A.10	(2.826)
Sortutako eta ekitaldi itxieran erregistratu gabeko gastuak .....	A.13	(1.283)
<b>GUZTIRA</b>		<b>(5.948)</b>

Epaitegi honen iritzira, 3. idatz-zatian azaldutako mugaketa, 4. idatz-zatiko zalantza egoera eta 2tik 5erako idatz-zatietan deskribatutako akatsak salbuetsita, EHUren aurrekontuko kontularitza-egoerek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2007ko aurrekontuko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, 07.12.31n finantza egoera eta ekitaldian aurrekontuko eragiketen emaitza.



### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN GAINEKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedura eta kudeaketazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

##### Urteko kontuak

- Unibertsitateen aurrekontuaren egitura, kontularitzako sistema eta urteko kontuek barne hartzen dituzten agiriak, kasu guztietan, sektore publikoarentzat izaera orokorrarekin finkatzen diren arauetara egokitu behar dira. Testuinguru honetan, kontularitza normalizatu ahal izateko, Autonomia Erkidegoek kontabilitate plan bat ezarri ahal izango dute euren eskumeneko Unibertsitateentzako (Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoaren 81.4 artikulua, aurrerantzean ULO).

Finantza, aurrekontu eta kontularitzako araubidea izaera orokorrarekin Autonomia Erkidegoaren Administrazioarako finkatutakoari egokituko zaio. Egokitzapen hori Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorra (aurrerantzean EAE) unibertsitate eta aurrekontu eta ekonomia kontrolerako gaietan eskumena duten sailen bitartez egingo da eta, gutxienez, unibertsitate publikoaren aurrekontu-egitura, kontularitzako sistema eta urteko kontuak osatzen dituzten agiriak barne hartuko ditu (Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legearen 104 artikulua, aurrerantzean EUSL).

**EAEk ez du Euskal Herriko Unibertsitaterako kontabilitate plan bat ezarri, ez eta EUSLn aurreikusitako egokitzapena egin ere.**

- EHUko Errektoreak Eusko Jaurlaritzako unibertsitate eta aurrekontu eta ekonomia kontrolerako gaietan eskumena duten sailei urte bakoitzeko lehenengo seihilekoan honako hauek igorri behar dizkio: aurreko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren auditatutako likidazioa, ekitaldi amaierako egoera balantzea eta ekonomia-oroitidazkia (EUSLren 106. artikulua).

**Unibertsitateak kontuak Ekonomia-Txostenaren bitartez ematen ditu, EHUren Estatutuek agintzen duten moduan; Gizarte Kontseiluak 2008ko abenduaren 18an onetsi ditu eta honenbestez, arautegian aurreikusitako epea gainditu du. Halaber, Gizarte Kontseiluak ekitaldiaren aurrekontua berandu onetsi zuela azpimarratu behar dugu, 2007ko maiatzaren 23an alegia.**

- Ekonomia-Txostenaren edukiari dagokionez, Estatutuek honako egoera hauek aurreikusten dituzte:



- Aurrekontuaren behin-betiko likidazioa
- Diruzaintza egoera eta zor kontuak, saldo erabilgarriak eta zordun eta hartzekodun ez aurrekontuzkoen saldoak xehetasunez adieraziaz.
- EHUren ondasunen ondare zerrenda aurreko urteko abenduaren 31n.
- Baliabide ekonomikoen kudeaketaren gaineko xehetasunezko txostena, aurrekontuko kontu-sailak kudeaketa unitateen arabera zati-banatu.

EHUren Estatutuek ez diote inongo erreferentziarik egiten Egoeraren Balantzeari eta Galdu-Irabazien Kontuari. EHUK, nolana dela ere, Txosten Ekonomikoari erantsitako agiri modura aurkezten ditu. Kanpoko auditoreak ez du ondare-egoerei buruzko iritzirik ematen, aurrekontuko egoerei buruzkoa soilik; honen gainean esan behar dugu, EUSLk auditatutako aurrekontuzko egoerak aurkezteko soilik eskatzen duela, gure iritzira, ondare-egoeretara zabaldu behar litzatekeena. Bestalde, aurkeztu beharreko Txosten ekonomikoaren edukia garatzea komenigarria litzateke.

- EHUK aurkeztutako aurrekontuko kontularitza-egoeren atal diren hainbat konturen saldoen eta kanpoko auditoria txostenean ageri direnen artean aldeak sumatu dira; ez dute, ordea, aurrekontuko emaitza eragiten, saldoen birsailkapenei baitagozkie.

Berebat, Ekonomia Txostenaren eranskinean aurkeztutako aurrekontuko kontuek ekitaldi itxieran egiten diren kontularitzako oharpenak barne hartzen dituzte, kontabilitatean erregistratu ez direnak, batik bat, zordunen idazpuruko hainbat konturen saldoen birsailkapenei baitagozkie.

Unibertsitateak kontabilitatea ixteko prozedura egokia finkatu behar du eta kontrola, kontularitzako erregistroa eta egindako oharren dokumentazio euskarria osatzeko beharrezko diren baliabideak ezarri.

- EHUK 2009ko apirilean Foru Ogasunen aurrean 2001etik 2005eko ekitaldira bitarteko – biak barne- balio erantsiaren gaineko zergaren ordezkotako aitorpenak aurkeztu ditu, guztira kobratu beharreko 10.547 mila euroko zenbatekoarekin; izan ere, Europako Erkidegoetako Auzitegiaren 2005eko urriaren 6ko Epaiak hala ebatzi baitzuen diru-laguntzetan balio erantsiaren gaineko zerga deduzitzeari dagokionez, txosten hau idatzi dugun datan Foru ogasunak likidazio hauen gainean iritzirik eman ez dutela.

Gure iritzira, likidazio hauek aurkeztean hiru urtetik gorako atzeraldia ez dago justifikatua, are gehiago, erreklamatzeko den kopurua aintzat hartuta.



- Azkenik, esan behar dugu unibertsitatearen aurrekontu likidazioak hainbat berezitasun dituela, zuzendu behar liratekeenak:
  - Aitortutako eta jasotako eskubide modura erregistratzen du aurreko ekitaldiko Diruzaintza Geldikina, sarrerren 8. kapituluaren bitartez (ikus A.8).
  - Langileei emandako maileguengatikoko gastu modura soldata masaren igoeraren % 2a erregistratzen du eta emakida eta itzulketen egiazko mugimendua aurrekontuz kanpoko eragiketetan erregistratzen da; eragiketa hauek aurrekontuan zuzen erregistratzeak Pilatutako Eraitza 206 mila euro gehitzea ekarriko luke (ikus A.11).
  - Gastuen 8. kapituluaren itxitako ekitaldien eskubide eta obligazioen baliogabetzeak erregistratzen ditu (ikus A.8).
  - Aurrekontuz kanpoan erregistratzen ditu itxitako ekitaldietako kobratzeko eta ordaintzeko saldoak.

## Barne kontrola

EHUren Estatutuen 324 artikulua agintzen du unibertsitateak gastu eta sarrerren barne kontrola ziurtatuko duela legezketasun, eraginkortasun eta efizientzia printzipioei jarraiki eta horretarako, Barne Kontrolerako Unitatea unitate administratiboa izango dela, Errektorearekiko mendekotasun zuzena eta Gerentearekiko autonomia funtzionala izango duena.

EHUK ez du Barne Kontrolaren Unitaterako inongo jarduera planik ezarri, gastu eta sarrerren barne kontrola bermatzeko gauzatu beharreko jarduerak besarkatuko dituena.

## Baimendutako Gastu Unitateak (BGU)

EHUren kontabilitate sistema BGUetan deszentralizatuta dago, eta unitate horiek arduratzen dira kontabilitateaz, ordainketaz eta aurrekontu kudeaketaren kontrolaz. BGUak bi motatan bereizten dira, batzuk iraunkorrak dira (Zerbitzu Nagusiak, Zentroak, Sailak, Institutuak eta Zerbitzuak, guztien artean 235 gastu unitate inguru egiten dituztenak), eta beste batzuk, iragankorrak (2.400 unitate inguru). Azken hauek gastuak kudeatu, kontabilizatu eta ordaintzeko eratzen dira, gastu horiek ikerkuntzari, irakaskuntzari edo Unibertsitateak kanpoko erakundeekin egindako kontratuak betetzeari buruzkoak direnean; halaber, bi finantziario iturri dituzte, prezio publikoak, batetik, gradu ondoko ikastaroetarako, eta kanpoko ekarpenak, bestetik, proiektuak eta kontratuak egiteko. Gastu eta ordainketa horien agiri euskarriak unitateetako bakoitzean geratzen dira, eta ikastaro edo kontratuaren arduradunak dira gastu hori finantzatzeko diru-sarrera jasotzen duen kontu korrontearen titularrak.



Gure ustez, BGUen bidez gaur egun dagoen deszentralizazioa ez da eraginkorra gastua behar bezala kontabilizatzeko eta ondoren kontrolatzeko. Modu batuago batean egin beharko litzateke, batik bat ikerketa proiektuetan eta kanpoko kontratuetan.

Era berean, egiaztatu beharko litzateke ea kontabilitatearen euskarri diren agiriak kontabilizatzeko, justifikatzeko, ordaintzeko eta artxibatzeko prozedurak betetzen diren, bai eta mantenuko gastuak eta joan-etorrietakoak behar bezala justifikatzen diren ere, Barne Kontroleko Zerbitzuak aldizka ikuskapena eginda.

## Berariazko geldikina

Unibertsitatearen berariazko geldikina exekutatzeko dauden kredituek osatzen dute, ikerketa proiektu eta azpiegiturei dagozkienak, xede jakin baterako kanpoko baliabideez hornitutako kontratuetatik datozei eta zorpetutako konpromisoak besarkatzen dituztenei, arrazoi justifikatuak tarte gauzatu ezin izan direnak. Kreditu horien saldoak esleipena jaso zuten unitate funtzionalen eskura geratzen dira (Estatutuen 318 art.).

EHUK aurkeztutako txosten ekonomikoaren arabera, berariazko geldikina 81.762 mila eurokoa zen 2007ko abenduaren 31n, eta haren % 35a ikerkuntza programen “funtzionamendu gastuak” izeneko kapituluari zegokion, kanpoko finantzaketa bidez gauzatutako ikerkuntza kontratuak jasotzen dituen.

Berariazko geldikina 2.351 BGUtan dago barreiatuak (2.260 BGUk guztizko zenbatekoaren % 52a hartzen dute). Zenbatekorik handienak dituzten BGUak eta, batez ere, ikerkuntza programei dagozkienak aztertuta, hainbat kontu-sail aurkitu dira berariazko geldikinean gaizki jasota zeudenak, ez baitagozkie Estatutuen 318. artikuluko arautzen dituen suposamenduei. Horien artean hauek nabarmendu nahi ditugu:

- 1.650 mila euroko ekipamendu zientifikoa eta informatikoa eta BGAE-Itzarriri 5.471 mila euroko ekarpenak egiteko aurreikuspena; horien kontu-sailak EHUren sarrera aurrekontuaren bidez finantzatzen dira eta ez dute berariazko finantziatorik.
- EHUK eta Euskoiker Fundazioak izenpeturiko ikerkuntza kontratuen % 5eko atxikpenak. Haien helburua generikoa da, 338 mila euroko zenbatekoa guztira.

Ez da behar bezala kontrolatzen ikerkuntza kontratuen burutzapena, eta, ondorioz, soberako kredituak arazteko lana egin gabe uzten da eta hurrengo ekitaldietako aurrekontuei gehitzen zaizkie. Huts honek Estatutuen 318. artikuluko 3. puntua aplikatzea eragozten du, izan ere, hari jarraituz, berariazko kreditu geldikinek haiei dagokien jarduera bukatu eta hurrengo ekitaldiaren amaieran galduko dutela izaera hori agintzen baitu. Honenbestez, dauden kontratu guztiak azertu beharko lirateke, eta, kontratu berrien kasuan, elementu identifikatzaile bat sartu beharko litzateke programa informatikoan, informazio hori jasotzeko.



### III.2 LANGILEAK

Atal honetan ondoko alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legearen 33 eta 34 artikuluek agintzen dute Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez kontraturiko irakasle eta ikerlarien ordainsari erregimena zehaztuko duela. Arauen garapen hau ez da 2008 urte arte gauzatu, EHUren irakasle eta ikerlarien araubideari buruzko martxoaren 4ko 40/2008 Dekretu bidez, eta EHUren irakasle eta ikerlarien ordainsariei buruzko martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuaren bidez.
- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea eta Akreditazioa Balio-neurtzeko Agentziak ez ditu eskatutako betekizunak ezarri eta honenbestez, ezin gauzatu izan du Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legearen 23. artikulua lan izaerako irakasle elkartuen kontratazioetarako agintzen duen balorazio positiboa. Aipatutako legea abian jarri zenetik 2007ko abenduaren 31ra arte langileria honen 262 kontratazio gauzatu dira.
- Euskal Herriko Auzitegi nagusiak 2008ko irailaren 26an ebatzitako epaian zuzenbidearekiko desados izendatu ditu eta baliogabe utzi ditu urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren hainbat artikulua, EHUren irakasle ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarri buruzkoak eta zehazki 6. artikulua 1 eta 2. zenbakiak eta 8tik 13ra bitarteko –biak barne- C1 mailako irizpideak: baita A eta B mailako irizpideak ere, 2.1.-12 eta 14tik 19ra (biak barne), banakako ordainsari osagarrien izendapena taldeko merezimenduekin lotzen baitute. Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren epaia Gizarte Kontseiluak osagarriak eman eta ordaindu ondorengo da eta zati batean baliogabetu den Osagarri buruzko dekretua zalantzan jartzen du, aurretik onetsitako osagarriak eragin gabe.
- EHUK eman dituen erretiro-sariei 2007ko ekitaldian 1.240 mila euroko gastua izan dute. Horiek EHUren 2007ko langileria funtzionario eta lan kontratupekoaren lan baldintzak arautzen dituzten erabakietan ezarritakoaren arabera eman dira eta, Euskal Funtzio Publikoaren Legean hala aurreikusita badago ere, ez daude giza baliabideak arrazionalizatzeko inongo programatan jasoak.
- EHUK ez dauka irakasle bakoitzak egiaz egindako irakastorduak ezagutzea bideratuko duen ordutegi kontrolerako prozedurarik. Berebat, ikerketarako emandako ordu kopurua ere kontrolatzeke dago.

**Dedikazio teorikoaren jarraipen eta kontrola gauzatu behar da, urratzen den kasuetan edo antzematen diren desbideratzeak justifikatzen ez direnean, dagozkion neurriak hartuz.**

- EHUK 2003ko ekitaldiaz geroztik irakasle berriek kargu hartzean bateraezintasunei buruzko araua betetzen dela egiaztatzeke prozedura ezarria dauka. Nolanahi dela ere, data horretan zegoen langileria dagokionez, ezin izan da irakasle guztien egoera aztertu, irakasleek jarri dituzten errekurtsioengatik eta EHUK eskatutako agiriak kasu guztietan eman ez dituztelako. Egoera honen ondorioz EHUK Gizarte Segurantzari beste



enpresa edo erakunde batzuetan zerbitzu ematen duen eta hainbanaketarik eskatu ez duen langileriaren ordainsari guztiengatik kotizatzen du.

Jarduera bateraezinen kontrolari eutsi behar zaio, Unibertsitatean diharduten langile arduradunen aitortzen bidez edo antzeko mekanismoen bidez, bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritakoa betetzen dela bermatzeko eta Gizarte Segurantzari egiten zaizkion kotizazioetan hutsak zuzentzeko.

- EHUK ez du aintzat hartzen irakasle bakoitzaren ordainsari aldakorren multzoa (gradu-ondoko ikastaroak, ikerketa kontratuak, e.a.) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) atxikipen ehunekoa zehazterakoan.

EHUK gogoan izan behar ditu ordainsari guztiak PFEZaren atxikipen ehunekoa kalkulatu ahal izateko.

### **III.3 IZAERA ZIENTIFIKO, TEKNIKO ETA ARTISTIKOA DUTEN LANAK**

Honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu Unibertsitateak izenpetutako izaera zientifiko, tekniko eta artistikoa duten lanei dagokienez, 2007an 20.896 mila euroko sarrerak likidatu dituena:

#### **Kontratu hauen kontzeptuan irakasle eta ikertzaileen ordainsariak**

Gobernu Batzordeak 1998ko maiatzaren 18an izaera zientifiko, tekniko eta artistikoa duten lanak egiteagatik irakasleek jasoko zutena arautu zuen eta kontratu bakoitzarentzat irakasle bakoitzak kobratu zezakeen muga ezarri zuen, gaindiezina dena, izan ere, kontratu guztiek baitute % 12ko atxikipena Sailarentzat eta Unibertsitatearentzat osotasunean hartuta. Berebat, bigarren muga bat ezarri da eta horren arabera, unibertsitateko irakasle bakoitzak kontratu horien kontura eskura dezakeen urteko diru-kopuruak ezingo du 1086/89 Errege Dekretuaren kontzeptu guztiengatik lanaldi osoko dedikazioko araubidean gorengo kategoria irakaskuntza-akademikoari legokiokkeen urteko ordainsariaren % 150a gainditu. Bigarren muga hau -2007ko ekitaldian 128 mila euro egin dituena-, ez du aztertu ditugun irakasleentzat inork ere gainditu. Hala eta guztiz ere, EHUK ez du muga honen gaineko egiazaketarik egiten, beteko dela bermatzeko egin beharko lukeena.

2007ko abenduaren 20an Gobernu Kontseiluak ezarri zuen aurrekontua exekutatzeko arautegiak zehaztuko duela aipatutako bi muga horien zenbatekoa. Ordea, alderdi hau ez da kontutan hartu 2008ko ekitaldiaren aurrekontuan.

Izaera zientifiko, tekniko eta artistikoa duten kontratuetan, EHUK ez du kontratua exekutatzeko beharrezko diren egitekoak betetzeagatik irakasleriari ordaindu behar zaion



prezioa/orduko finkatu. Orduen esleipena eta kontratuen zenbatekoaren banaketa finkatzen dituen oroitidazkiak aztertzeetik ondorioztatu da ikerlariei ordaintzen zaien prezioa orduko 100 eta 553 euro bitartekoa dela.

### **Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzak (Saiotek eta Etortek programak), EHUK izaera zientifiko, tekniko eta artistikoa duten kontratu modura izapidetuak.**

EHUK 2007ko ekitaldiko sarreraren aurrekontuan Eusko Jaurlaritzatik jasotako diru-laguntzei dagozkien 1.900 eta 4.124 mila euro erregistratu ditu, hurrenez hurren, Saiotek eta Etortek programen laguntza publikoak emateko deialdien kontzeptuan.

Eusko Jaurlaritzaren aurrean Saiotek eta Etortek programetako langile gastuei dagokien gastuaren justifikazioa irakasle eta ikertzaileek sortutako zeharkako kostu bidez egiten da eta horretarako, kostua/orduko kalkulua abiaburu hartzen da, 31,91 euroan dagoena eta horrek ez die irakasleei inongo ordainsari osagarririk eragiten. Egoera honek 4.242 mila euroko berariazko geldikinak izatea dakar eta horietatik 756 mila euro 2004ko ekitalditik eta lehenagokoetatik datoz, norako zehatza ez duten diru-laguntzek sortua eta honenbestez, ez dira halakotzat hartu behar.

### **Zeharkako kostuengatiko atxikipenak**

Gobernu Batzordeak 1998ko maiatzaren 18an kontratu hauen hainbat alderdi arautu zituen Estatutuek esleitzen zizkieten eskumenen arabera eta Sail edo baliokidearentzat aurrekontu osotik % 5eko atxikipena ezarri zuen (ibilgetu material inbentariagarriaren kostua behin gutxitu ondoren) eta % 7koa Unibertsitatearen gastu orokorretarako.

2007ko ekitaldian % 5eko atxikipena egiten ari da Ikerketa Emaitzak Transferitzeko Bulegorako (IETB), % 5 Sailerako edo baliokiderako, eta % 2 Zerbitzu Orokorretarako, ondoren aipatuko ditugun salbuespenetan izan ezik:

- Saiotek eta Etortek programak Eusko Jaurlaritzak itzuli beharrik gabe emandako diru laguntzen deialdi publikoei dagozkie. Sarrera hauei atxikipen ezberdinak egiten zaizkie, Ikerketa Errektoreordetzari dagokionez % 2 eta % 15 bitartekoak direla, ehuneko ezberdinak ezartzeko arrazoia justifikatu gabe.
- Euskoiker Fundazioarekin harpidetutako kontratuei Zerbitzu Orokorretarako % 7 atxikitzen zaie eta Fundazioa gainerako % 5arekin geratzen da.

2007ko abenduaren 20an izaera zientifiko, tekniko, humanistiko edo artistikoa duten lanak egiteko kontratuak arautuko dituen arautegi berria onetsi zen eta % 15eko gutxieneko atxikipena ezarri zen (% 5, ikastetxe, sail edo parekoarentzat eta % 10, unibertsitate jardueratik eratorritako emaitzen transferentzia sustatu eta hobetzetik eratorritako gastu gehigarriak ordaintzeko ez ezik, EHUren gastu orokorrei aurre egiteko ere bai).



## Kontratuen amaieraren kontrola

UPV/EHUK ez ditu ezarriak ikerkuntza kontratuen gauzatze egoera eta azken egoera kontrolatzeko behar diren prozedurak. Honela, bada, urtebeteko iraupena duten kontratu errepikariak azaleratu dira, jada amaituak direla berariazko geldikina erakusten dutenak. Soberakin hauen arazketa zaildu egiten da BGU berean hainbat kontratu erregistratzen baitira (orokorrean arduradun berari dagozkio), banakako kontrol egokirik egin gabe, ez funtsen jatorriari, ez helburuari buruzkorik ere. Honela, bada, 1.244 mila euroko geldikin berariazko globala duten hiru BGU azaleratu dira eta ez dakigu ikerketa proiektuen araberrako xehapena zein den.

Kontratu hauei dagokienez 2007ko abenduaren 20an onetsitako arautegiak eta atal honetan bertan arestian aipatu dugunak dio kontratua amaitzen denean agiri bat sinatuko dela kontratuaren xede den obra edo zerbitzua entregatu dela eta obra behin-betiko jaso dela egiaztatuko duena. Agiri horren datatik aurrera hurrengo ekitaldiko itxiera arteko denbora izango da kitatzeko dauden sarrera eta ordainketak baliogabetzeko eta BGUa ixteko. Soberakin ekonomikoa, halakorik balego, geldikin generiko izango litzateke. 2008ko ekitaldirako indarrean sartuko den araudi hau ez zaie ekitaldi horretan izenpetutako kontratuei aplikatu.

## Euskoiker Fundazioa

EHUK % 50eko partaidetza dauka Euskoiker fundazioaren patronatuan, eta fundazio horrek bere diru sarrera gehienak Unibertsitateak izenpeturiko kontratu zientifiko, artistiko eta teknikoetatik lortzen ditu, kontratu horiek eta UPV/EHUK kudeatzen dituenak berdin-berdinak izanik. Kontratu horietan EHUren lokaletan eta EHUren langileak aritzen dira.

Bestalde, Euskoiker fundazioak kudeatutako kontratuei dagokienez, honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- EHU arduraldi eskusiboko erregimena duten irakasle batzuek Bilboko Merkataritza Ganbara zentro atxikian ematen dituzte eskolak. Egoera hori, ordea, ez du 557/1991 Errege Dekretuak baimentzen, Unibertsitate eta unibertsitate zentroak sortu eta aitortzeari buruzkoak.
- EHUK Euskoiker fundazioak kudeatutako kontratuak izenpetzen ditu, baina ez du informaziorik kontratu horiek arrazoizkoak diren edo ez aztertzeke, ez daki bere irakasleek nolako arduraldia betetzen duten ikerkuntzan Euskoiker fundazioaren bitartez (ordu kopurua), eta ez daki zenbat kobratzen duten orduko.

Aztertu egin behar litzateke zenbateraino komeni den EHUrekin bat datorren fundazio xedea duen entitate bat mantentzea, horren jarduera Unibertsitatearen baliabideekin betetzen delarik, baina honek Fundazioaren gestioaren gainean inongo kontrolik izan gabe.



### III.4 ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

Aztertu ditugun administrazio kontratazioko espedienteetatik (ikus A.14) zera azpimarratu nahi dugu:

- EHUren ekonomia-finantza kudeaketaren barne kontrol egokirik ez izatearen ondorioz, kontratazio espedienteek hainbat huts erakusten dituzte, eduki ekonomikoa duten ekintzen aldez aurreko fiskalizazio beharrezko ezean zehazten direnak.
- Guztira 15.799 mila euroko zenbateko osoarekin esleitutako bost obra espedientetan ez dago erasota kontratazio atalak obra proiektua kontratazio espedientea izapidetu aurretik eta obraren birplanteaketa aurretik onetsi duela.
- 68.865 mila euroan esleitu eta aurretiaz izapidetutako bederatzi espedientetan, Administrazio Klausula Partikularren Pleguek ez dute esleipena kreditu egokia eta nahikoa izateko geldiarazte-baldintzara meneratzen.
- 84.433 euroko zenbatekoarekin esleitutako hamabost kontratutan, administrazio klausula partikularren pleguetan finkatutako esleipen irizpideak orokorrak dira eta ez dute proposamenak balio-neurtzeko unean aplikatu beharreko metodologia zehazten. Pleguek irizpide orokorrak garatu behar litzukete lehiatzaileek lizitazio unean jakin ahal izan dezaten zein izango den euren balorazio zehatza, kontratazio publikoan buru egin behar duen gardentasun gorena lortzearen.
- 16.098 mila euroan esleitutako hiru espedientetan atzerapenak gertatu dira gutun-azalen irekiera eta esleipen dataren artean.
- 19.100 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako bederatzi espedientetan, atzeraldiak sumatu dira kontratuaren prezioa ordaintzeko aurreikusitako epeak betetzean. Jokamolde honek kontratistaren aldetik berandutza interesak eta kobrantza kostuengatik kalte-ordainak eskatzea ekar lezake. 2007ko ekitaldian eta ebazpen judizial bidez EHU 109 mila euro ordaintzera zigortu zuten berandutza interesen kontzeptuan 2005eko ekitaldiari zegozkion erreklamazioengatik.
- Lau hornidura espedientetan eta zerbitzu emateko beste bitan, guztira 1.082 mila euroko zenbateko osoarekin esleitu zirenetan, atzeraldi nabarmenak sumatu dira kontratuan aurreikusitako exekuzioan; horren aurrean, ordea, ez dira dagozkion luzapen edo epe luzatzeak izapidetu, ez eta gertatutako gorabeherak aintzat hartuko zituzketen aldi baterako etendurak ere. EHUK kontratuen exekuzioa gainbegiratu eta sortzen diren gorabeherak formalizatu behar ditu.
- Guztira 4.651 mila euroko zenbateko osoarekin esleitutako hornidurako bederatzi espedientetan, hornitzaileek ez dituzte jaso izanaren agiriak sinatzen. Zuzendu egin behar litzateke jokamolde hau, izan ere, egoki eta komenigarria baita helburua guztiz bete dela formalki erasota uzteko.



## BGUek ondasun eta zerbitzuak erostea

BGU bakoitzak gai propioak erosten ditu zentro eta zerbitzu bakoitzerako, era deszentralizatuan; era honetara, bada, BGU guztiak bihurtzen dira erosketa zentro, eta, beraz, kontratazio espediente bat tramitatzeko araudian aurreikusitako zenbatekoak modu berezian aplikatzen dira gastu unitate bakoitzerako.

BGUek kontratu txikiaren moldea erabilia izapidetu dituzten gastuak aztertu ditugu, eta antzeman dugu badirela 9.921 mila euroko hainbat produktu eta zerbitzuen erosketak EHUK aztertu beharreko direnak, produktu eta zerbitzu horiek ahalik eta homogeneoenak izan daitezten, eta, ondorioz, era zentralizatuan erostea egokia den erabaki dezan, horren arabera, administrazio kontratazioko espedienteak bideratu ahal izateko (ikus A.14). EHUK, ordea, ez du produktu eta zerbitzu homogeneoak identifikatuko dituen kontabilitaterik, eta, beraz, lan hori gastu handia dakarten aurrekontu kontzeptuei dagokienez egin beharko litzateke, hornitzaile batengan edo gutxi batzuegan kontzentratzen direnak.

Gure ustez, EHUK protokoloa ezarri behar du BGUek produktu eta zerbitzuak erosten dituztenerako. Protokolo horretan, produktu homogeneoak zehaztu behar dira, eta era zentralizatuan erosi, hala badagokio, administrazio kontratazioaren araudia betetzeko.

## III.5 BEREZKO TITULUAK

Gradu eta Graduondoko Ikasketen Errektoreordetzak graduondoko berezko tituluen jarraipena egiten du ikastaroa amaitzean titulu arduradunek egiten duten oroit-idatzi akademikoaren arabera. 2006-2007ko ekitaldiari dagokionez (ikasturte amaieran landutako informazioa eskura daitekeen azkena) honako atal hauek azpimarratu behar ditugu:

- Gobernu Batzordeak 2006-2007 ikasturte akademikorako baimendutako graduondoko 35 berezko tituluetatik, 27 titulazio gauzatu dira; 8 ez dira gauzatu, batik bat, behar hainbat matrikulazio ez izateagatik. Baimendu eta gauzatu diren berezko tituluen kopurua aurreko edizioetakoa baino txikiagoa da (2004-2005 ikasturtean 51 eskaini ziren eta 36 eman), izan ere, horietako batzuk master ofizial bihurtzen baitira.
- Irakasle bakoitzak eskola ordu bakoitzeko kobratzen duen prezioak ez du mugarik eta honenbestez, ez da aintzat hartzen irakasleen kategoria (irakaskuntzan orduko 18 eta 180 euro/ordu artekoa eta zuzendaritzan 240 euro/ordukora iristen da); areago, berezko titulu bakoitzean ere prezio aldeak daude eta preziorik altuenak diruz lagundutako berezko tituluei dagozkie eskuarki.
- Titulu bakoitzaren arduradunek mamitutako azken oroi-idatziak aztertzeetik ondorioztatu da tituluak emateko proposamenean ageri diren irakasle kopuruaren eta irakasleen egiazko asistentziaren artean aldeak daudela.



#### IV. FINANTZAREN ANALISIA ETA BILAKAERA AKADEMIKO ETA IRAKASKUNTZAKOA

Azken ekitaldietako finantza bilakaera honakoa izan da:

EKITALDIAREN EMAITZA		Mila euro			
	(*)2004	2005	(*)2006	2007	
Tasak .....	36.868	38.061	37.874	29.190	
Kanpoko kontratuak .....	16.284	16.876	18.879	20.896	
Bestelako sarrerak .....	4.336	3.791	5.881	7.904	
Eusko Jaurlaritza (EJ): Urteko gastuaren finantzaketa .....	184.350	194.595	224.712	242.080	
Bestelako diru-laguntza helburudunak.....	28.567	36.559	44.166	57.058	
Ondare sarrerak .....	1.241	1.356	1.606	3.783	
<b>SARRERA ARRUNTAK</b>	<b>271.646</b>	<b>291.238</b>	<b>333.118</b>	<b>360.911</b>	
Irakasleria: EHuren ordainsariak.....	(**)(129.676)	(138.622)	(149.431)	(161.038)	
Irakasleria: Ikastaroak, egitasmoak eta kontratuak .....	(4.725)	(4.738)	(5.325)	(5.391)	
Admin. eta zerbitzuetako langileria .....	(40.575)	(42.940)	(48.382)	(54.224)	
Gizarte kotizazioak eta beste.....	(19.316)	(21.734)	(25.256)	(30.704)	
Langileen gastuak	(**)(194.292)	(208.034)	(228.394)	(251.357)	
Funtzionamendu gastuak .....	(57.215)	(62.095)	(64.380)	(67.814)	
Finantza gastua .....	-	(2)	(343)	(513)	
Transferentzia arruntak .....	(7.731)	(8.264)	(7.747)	(6.390)	
<b>GASTU ARRUNTAK</b>	<b>(**)(259.238)</b>	<b>(278.395)</b>	<b>(300.864)</b>	<b>(326.074)</b>	
<b>EMAITZA ARRUNTA</b>	<b>(**)(12.408)</b>	<b>12.843</b>	<b>32.254</b>	<b>34.837</b>	
Kapital transferentziak (sarrerak ken gastuak).....	28.134	28.038	19.670	22.782	
Inbertsio errealak .....	(40.008)	(32.084)	(42.544)	(44.554)	
<b>KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(11.874)</b>	<b>(4.046)</b>	<b>(22.874)</b>	<b>(21.772)</b>	
Finantza pasiboen bariazioa (sarrerak) .....	-	15.400	383	3.143	
Finantza aktiboen bariazioa (gastuak - sarrerak).....	(87)	(87)	(87)	(73)	
Ekitaldi itxietako sarrerak baliogabetzea .....	-	(1.322)	(956)	(1.105)	
<b>FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK</b>	<b>(87)</b>	<b>13.991</b>	<b>(660)</b>	<b>1.965</b>	
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>(**)(447)</b>	<b>22.788</b>	<b>8.720</b>	<b>15.030</b>	

(\*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

(\*\*) 2004ko aurrekontuan erregistratu gabeko 5.273 mila euroko banakako ordainsari osagarriak barne hartzen ditu.

DIRUZAINTZAKO GELDIKINA		Mila euro			
	2004	2005	2006	2007	
<b>GELDIKINA EKITALDI HASIERAN</b>	<b>29.511</b>	<b>29.958</b>	<b>52.746</b>	<b>61.466</b>	
<b>GELDIKINA EKITALDI ITXIERAN</b>	<b>29.958</b>	<b>52.746</b>	<b>61.466</b>	<b>76.496</b>	
<b>BERARIAZKO GELDIKINA</b>	<b>43.158</b>	<b>48.218</b>	<b>61.390</b>	<b>81.762</b>	
<b>GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA</b>	<b>(**)(13.200)</b>	<b>4.528</b>	<b>76</b>	<b>(5.266)</b>	

(\*\*\*) Aurrekontu likidazioetan erregistratu gabeko banakako ordainsari osagarrien ordainketak barne hartzen ditu: 15.271 mila euro 2004ko abenduaren 31n.



## **Emaizta arrunta**

2006 eta 2007ko ekitaldien emaitza arruntak igoaldi nabarmena izan du aurreko ekitaldiekiko, urteko 12.000 mila euroko kopurua egitetik 32.000 euroko kopuru handia egitera aldatuz. Igoaldi hau, batik bat, Eusko Jaurlaritzak EHUren urteko gastua finantzatzeko sarrerak igo izanaren ondorioz gertatu da, 2006ko urtean 30.117 mila euro igo baita eta beste 17.368 mila euro osagarri 2007ko ekitaldian.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/88 Legean ezarritakoaren arabera, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak agiri honetan jasotako alegazioak egin ditu.

Alegazioen edukia garatu aurretik, zenbait gogoeta egin behar dira haiek hobeto ulertzeko.

Administrazio hobekuntzako prozesuak, ezinbestean, pixkanaka gertatzen dira eta, UPV/EHUren kasuan, Kontuen Epaitegiak berak modu aktiboan parte hartu du eta iradokizun ugari egin ditu bere txostenetan. Horri esker, aurreko ekitaldiekin alderatuta antzemandako aurrerapenak oso balorazio ona izan dute.

Unibertsitatearen antolamoldeak ikastegiak, sailak eta zerbitzuak barne hartzen ditu gestore ekonomiko gisa, baita ikerketa proiektuen eta kontratuen arduradunak ere. Horren alde ona da oso sistema deszentralizatua duela eta, horri esker, proiektuen gestore, ikertzaile eta sustatzaileek tresna arin eta eraginkorrak dituztela. Alde txarra da, ordea, zaila dela kontrol egokia izatea. Hori dela eta, alderdi honetan egin da prozesuak normalizatu eta homogeneizatzeko ahaleginik handiena, kanpoko kontu ikuskaritzak garbi erakusten ari diren bezala.

Jarraian, alegazioak aurkeztuko dira, txosteneko ordenari jarraiki:

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### Kontratazioa (ikus A.14)

4. *“Publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitutako lau kontratutan, 376 mila euroko zenbatekoa egin dutenak, eskaintza bakarra eskatu da eta horrek, okerrez, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu BATERATUAREN 92. artikuluan aurreikusitako lehia eskakizuna mugatu du (aurrerantzean, APKLTB)”.*

HAKLren artikulua horrek ez ditu soilik prozedura negoziatuetako lehia baldintzak arautzen. Aitzitik, 92. artikulua “ahal denean” hiru enpresari gonbit egingo zaiela adierazteaz gain, hainbat artikulutan enpresa bakarrari noiz gonbit egin ahal izango zaion biltzen da. Arrazoi horiek teknikoak izan ohi dira eta UPV/EHUren espedienteetan zio horiek memorietan adierazten dira.

5. *“«EHUren 2006-2011ko inbertsioen urteanitzeko proiektu eta obren kudeaketa osorako zerbitzuak» kontratazio espedienteetan, 5.335 mila euroko gutxi gorabeherako aurrekontua duena eta 2007ko otsailaren 13an esleitu zena, ez da arkitektura eta obra zerbitzuaren txostena egin, kontratuak ase asmo dituen beharrezanezi aurre egiteko giza eta gauzazko baliabideen egokitasun eza edo horiek ez erabiltzearen komenigarritasuna justifikatuko duena”.*



UPV/EHUko errektoreak 2006ko urriaren 20ko memorian dio ez daudela baliabide nahikoak. Hori behar beste justifikatuta zegoela ulertu zen, aurretik Unibertsitateko zerbitzu tekniko eskudunen aholkularitza izan baitzen.

6. *“EHUK aldez aurreko izapide bidez eta kontratazio espediente bakar batean, 2007ko azaroaren 3an DOUEn honako eraikin berri hauek eraikitzeko proiektuen idazkera eta lanen exekuzioaren lizitazioan esku hartu zuen, 51.150 mila euroko aurrekontuarekin: Leioan Magisteritza U.E., Meatze eta Herri Lanetarako Ingeniaritza Teknikoaren U.E. eta Bilboko Industri Ingeniaritza Teknikoaren U.E.” Kontratu honetan eta prezioaren atal modura Deustuko Magisteritza U.E. inguruan kokatutako lursailen esleipena barne hartzen da, 20.310 mila euroko balioa dutenak, Bilboko Udalak bizilekuetarako birkalifikatu ondoren, 2006ko abenduaren 19an EHUrekin izenpetutako hitzarmen bat beteaz. Kontratua 2008ko apirilaren 11n lehiatu zuen lizitatzailerak bakarrari esleitu zitzaion 51.145 mila euroan eta 28 hilabeteko exekuzio epearekin. Espedientea aztertu ondoren, honako alderdi hauek gailendu dira:*

- *Proiektuaren idazkera eta obren exekuzioa batera lehiatzea salbuespena da eta behar hainbat justifikatu behar da espedientean APKLTBren 125. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Arkitekto Eusko Nafarren Elkargo Ofizialak EHUK ezetsitako berraztertze errekurtso baten ondoren administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu zuen lizitazioaren onespeneren aurka, izan ere, obren proiektu eta exekuzioa batera lehiatzea ez zitzaizela APKLTBren aurreikuspenei egokitzen iritzi baitzion. Txosten hau idatzi den datan errekurtsoa ebazteko dago”.*

Salbuespen horren justifikaziozko memoria ageri da, 2007ko urriaren 31koa. Bertan, hiru arrazoi aipatzen dira lizitazioa horrela egin izateko: kontratuaren tamaina, ohikoa ez den beste ordainketa sistema bat kudeatzeko beharra eta hori aurrekontuan kudeatzeko modua. Salbuespen hori ordainketaren zati bat gauzaz, hau da, orube bat emanda, egingo delako ezarri da. Hori dela eta, oso zaila zen kontratua modu independentean egitea.

- *“Bestetik, kontratuaren lizitazioa San Mameseko Ekipamendu-Arearen Plan Bereziaren hirigintzako garapena amaitu gabe gauzatu zen eta zehaztu gabe zeudela, beraz, EHUK eraiki asmo zituen eraikin berrien lursailen zegozkien aprobetxamenduak, Meatze eta Herri Lanetarako Ingeniaritza Teknikoaren U.E. eta Bilboko Industri Ingeniaritza Teknikoaren U.E., alegia. Egoera honek kontratuaren exekuzioan atzerapena ekarri du eta dago erasota EHUK kontratua aldatzeko dagozkion jarduerak gauzatu dituenik”.*

Kontratua, neurri handi batean, San Mameseko Ekipamenduetako Alderako Plan Bereziaren izandako aldaketengatik atzeratu zen. Plan honek 2007ko martxoaren 29an jaso zuen



hasierako onarpena, baina, ondoren, Bilboko Udalak aldatu egin zuen, eta UPV/EHUrekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, esaterako, Bilborako sarbideen I. fasea gauzatzea.

Horrek, besteak beste, aipatu kontratua aldatzea ekarri du berekin (2009ko maiatzaren 11ko Ebazpenaren bidez).

### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN GAINEKO IRIZPENAK

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

*“EHUk 2009ko apirilean Foru Ogasunen aurrean 2001etik 2005eko ekitaldira bitarteko –biak barne- balio erantsiaren gaineko zergaren ordezko aitorpenak aurkeztu ditu, guztira kobratu beharreko 10.547 mila euroko zenbatekoarekin; izan ere, Europako Erkidegoetako Auzitegiaren 2005eko urriaren 6ko Epaiak hala ebatzi baitzuen diru-laguntzetan balio erantsiaren gaineko zerga deduzitzeari dagokionez, txosten hau idatzi dugun datan Foru ogasunak likidazio hauen gainean iritzirik eman ez dutela.*

*Gure iritzira, likidazio hauek aurkeztean hiru urtetik gorako atzeraldia ez dago justifikatua, are gehiago, erreklamatzeko den kopurua aintzat hartuta”.*

2007ko urrian, 2006ko ekitaldiko kanpoko kontu ikuskaritza egin eta proposatutako doikuntzak egin ondoren, Bizkaiko Foru Ogasunean 2006ri dagokion balio erantsiaren gaineko zergaren likidazio zuzentzailea aurkeztu zen, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren 2005eko urriaren 6ko Epaiaren zehaztutako irizpideak barneratuta, baita ikerketarekin erlazionatutako programetan jasandako BEZa osorik kengarria izango dela sartuta ere.

2008an zerga ikuskatzaileak likidazioa ebaluatu du; horretarako, dokumentazio egokia aztertu eta egiaztatu du. Azkenean, 2008ko urriaren 21ean, adostasun akta egin zuen eta 2009an 2006ko ekitaldiari zegozkion zenbatekoak itzuli dira.

Ikuskaritzaren adostasuna lortu ondoren, 2007ko ekitaldiari dagokion likidazio zuzentzailea aurkeztu zen, aurreko ekitaldirako baldintza berdinetan.

2009ko maiatzaren 14an zerga ikuskatzaileak adostasun akta egin du eta 2009ko ekainaren 11n 2007ri zegokionez zor zen zenbatekoa itzuli da.

2001etik 2005era bitarteko ekitaldiak direla eta, likidazio zuzentzaileak aurkeztu dira, 2006 eta 2007ko ekitaldietarako adierazitako baldintza berdinetan. Likidazio horiek ondorengo datetan aurkeztu dira:

- Arabako Foru Ogasuna: 2009-04-06
- Gipuzkoako Foru Ogasuna: 2009-04-03
- Bizkaiko Foru Ogasuna: 2009-04-03

Horiek berrikusteari ekin zaio eta erantzuna jaso zain gaude.



### III. 3 IZAERA ZIENTIFIKO, TEKNIKO ETA ARTISTIKOA DUTEN LANAK

#### Kontratu hauen kontzeptuan irakasle eta ikertzaileen ordainsariak

*“Gobernu Batzordeak 1998ko maiatzaren 18an izaera zientifiko, tekniko eta artistikoa duten lanak egiteagatik irakasleek jasoko zutena arautu zuen eta kontratu bakoitzarentzat irakasle bakoitzak kontratu zezakeen muga ezarri zuen, gaindiezina dena, izan ere, kontratu guztiek baitute % 12ko atxikipena Sailarentzat eta Unibertsitatearentzat osotasunean hartuta. Berebat, bigarren muga bat ezarri da eta horren arabera, unibertsitateko irakasle bakoitzak kontratu horien kontura eskura dezakeen urteko diru-kopuruak ezingo du 1086/89 Errege Dekretuaren kontzeptu guztiengatik lanaldi osoko dedikazioko araubidean gorengo kategoria irakaskuntza-akademikoari legokiokoen urteko ordainsariaren % 150a gainditu. Bigarren muga hau –2007ko ekitaldian 128 mila euro egin dituen-, ez du aztertu ditugun irakasleetarik inork ere gainditu. Hala eta guztiz ere, EHUK ez du muga honen gaineko egiaztaketarik egiten, beteko dela bermatzeko egin beharko lukeena”.*

Nahiz eta 2007ko ekitaldiko lehenengo zatian ez ziren zuzenean kontrolatu irakasleek ikerlan zientifiko, tekniko eta artistikoengatik jaso ditzaketan zenbatekoak, 2007ko urrian prozedura finkatu zen Gobernu Batzarrak 1998ko maiatzaren 18an gai horri zegokionez ezarri zituen mugak betetzen zirela bermatzeko. Prozedura honek kontabilitateko kontzeptu bakar bat ezartzen du. Horretatik, nominarako ordainketa eskaerak (15020 kontzeptua) eta kontzeptu horretan OTRIrako dagokion kredituaren esleipena bidera daitezke, eskaera jaso eta UPV/EHUKo Kontratuen Araudian bildutako mugak egiaztatu ondoren.

#### Zeharkako kostuengatik atxikipenak

*“Gobernu Batzordeak 1998ko maiatzaren 18an kontratu hauen hainbat alderdi arautu zituen Estatutuek esleitzen zizkioten eskumenen arabera eta Sail edo baliokidearentzat aurrekontu osotik % 5eko atxikipena ezarri zuen (ibilgetu material inbentariagarriaren kostua behin gutxitu ondoren) eta % 7koa Unibertsitatearen gastu orokorretarako.*

*2007ko ekitaldian % 5eko atxikipena egiten ari da Ikerketa Emaitzak Transferitzeko Bulegorako (IETB), % 5 Sailerako edo baliokiderako, eta % 2 Zerbitzu Orokorretarako, ondoren aipatuko ditugun salbuespenetan izan ezik:*

- *Saiotek eta Etortek programak Eusko Jaurlaritzak itzuli beharrik gabe emandako diru laguntzen deialdi publikoei dagozkie. Sarrera hauei atxikipen ezberdinak egiten zaizkie, Ikerketa Errektoreordetzari dagokionez % 2 eta % 15 bitartekoak direla, ehuneko ezberdinak ezartzeko arrazoia justifikatu gabe.*



- *Euskoiker Fundazioarekin harpidetutako kontratuei Zerbitzu Orokorretarako % 7 atxikitzen zaie eta Fundazioa gainerako % 5arekin geratzen da”.*

Gobernu Batzarrak ezarritako atxikipenek Unibertsitateen Lege Organikoaren 83. artikulua eta UPV/EHUren Estatutuaren 315.aren babesean egindako lanei eragiten diete eta, beraz, ez zaizkie Saiotek eta Etortek programei aplikatzen, TVCP/HKEEK berak 2005eko fiskalizazio txostenean adierazi zuen moduan, araudi horren pean ez daudelako.

Programa horietan atxikitako zenbatekoak bertako langileek eskatutako orduekin bat datoz. Zenbateko horien zati bat proiektuetako bakoitzaren BGUan sartzen da eta beste zatia, berriz, Ikerketako Errektoreordetzarenean, bertako gastu orokorrak ordaintzeko. Ekitaldia amaitzen denean, azken hauek ez dira hurrengo urteko aurrekontuan barneratzen eta, beraz, geldikin generikotzat hartzen dira.

### III. 4 ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

- *“Guztira 15.799 mila euroko zenbateko osoarekin esleitutako bost obra espedientetan ez dago erasota kontratazio atalak obra proiektua kontratazio espedientea izapidetu aurretik eta obraren birplanteaketa aurretik onetsi duela”.*

Obra espedienteak onartzeko ebazpenetan ondorengo esamoldea jaso ohi da: “Espedientea, aurrekontua eta obra proiektua onartzea”. Kontratazio organoak baldin badu eskumen gorena, eta ebazpen hau espedientearen hasieran eman bada, baldintza hori behar bezala bete da.

- *“68.865 mila euroan esleitu eta aurretiaz izapidetutako bederatzi espedientetan, Administrazio Klausula Partikularren Pleguek ez dute esleipena kreditu egokia eta nahikoa izateko geldiarazte-baldintzara meneratzen”.*

UPV/EHUK kontratua onartzeko ebazpenean barneratzen du aurrez izapidetzeko prozedurari men egingo zaiola, baina ez Auzitegiak adierazitako formularekin. Gaur egun, formula hori jasotzen du Unibertsitateak ezaugarri horiek dituzten kontratuetan.

- *“84.433 euroko zenbatekoarekin esleitutako hamabost kontratutan, administrazio klausula partikularren pleguetan finkatutako esleipen irizpideak orokorrak dira eta ez dute proposamenak balio-neurtzeko unean aplikatu beharreko metodologia zehazten. Pleguek irizpide orokorrak garatu behar lituzkete lehiatzaileek lizitazio unean jakin ahal izan dezaten zein izango den euren balorazio zehatza, kontratazio publikoan buru egin behar duen gardentasun gorena lortzearen”.*



Aurkeztutako proposamenei Batzorde Teknikoak aplikatzen dizkie esleipen irizpideak. Kontratu bakoitzerako batzorde bana izendatzen da eta honek aipatu proposamenak objektiboak direla eta egoki barematzen direla bermatzen du.

- *“Guztira 4.651 mila euroko zenbateko osoarekin esleitutako hornidurako bederatzi espedientetan, hornitzaileek ez dituzte jaso izanaren agiriak sinatzen. Zuzendu egin behar litzateke jokamolde hau, izan ere, egoki eta komenigarria baita helburua guztiz bete dela formalki erasota uzteko”.*

UPV/EHU administrazio publiko bat da eta hornikuntza espedienteak batez ere Euskal Herrian kokatuta ez dauden enpresek kontratatzen ditu, askotan, gainera, Espainiatik kanpoko enpresek. Ez da inola ere errentagarria harrera akta sinatzerakoan enpresen ordezkariak bertan egon daitezela eskatzea. Hori dela eta, eraginkortasun handiagoaren mesedetan, enpresei harrera akten jatorrizko bat helarazi zaie eta hartu izanaren adierazpena bidaltzeko eskatu zaie. Enpresek ez badute inolako erreklamaziorik egiten, besterik gabe onartzen direla ulertzen da. Izan ere, halaxe adierazten du aktaren alea jaso ondoren fakturak bidaltzeak. Espainia osoko, Alemaniako, Frantziako, AEBetako, Ingalaterrako nahiz beste leku batzuetako enpresek ezin izango liokete aurre egin harrera aktak sinatzeko nahitaez ordezkari bat bidali behar dutela ezartzeari, joan-etorrien gastuak kobratu ezean. Horrek, ordea, kontratuak garestituko lituzke UPV/EHUrentzat.

Aldiz, obra kontratuetan, ordezkari bat obran bertan izaten denez, aktak enpresek eurek sinatzen dituzte beti. Zerbitzu kontratuetan, ordea, hori ez da derrigorrezkoa. Inguruabar formal hori kontratatutako zerbitzuak onartzeko aktak egitean eta Kontratazio Zerbitzuan agiri hori jaso eta fidantzak berehala ezeztatzean gainditzen da.

## **BGUek ondasun eta zerbitzuak erostea**

*“Gure ustez, EHUk protokoloa ezarri behar du BGUek produktu eta zerbitzuak erosten dituztenerako. Protokolo horretan, produktu homogeneousak zehaztu behar dira, eta era zentralizatuan erosi, hala badagokio, administrazio kontratazioaren araudia betetzeko”.*

UPV/EHUk denbora asko darama hutsune horiek zuzentzen, hornidurak nahiz zerbitzuak homologatzeko ondorengo espedienteetan ikus daitekeen bezala. Horrela, adibide batzuk aipatzearren: laborategietako altzariak, bulegoetako altzariak, ikasgeletako altzariak, ekipamendu informatikoa, bidaia agentziak, 60.000 eurotik beherako zenbatekoko obrak, instalazioak mantentzeko lanak, ekipamendu zientifikoa mantentzeko lanak...



## ERANSKINAK

### A.3 LANGILE GASTUAK

#### Beste ordainsari batzuk

*“Unibertsitateak ordainsari osagarriak eta parekatzeak ordaindu ditu, unibertsitateko irakasleriaren ordainsariei buruzko abuzturaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuak arautu ez dituenak. Osagarri hauek 2007ko ekitaldian 6.128 mila euroko gastua eragin dute”.*

Osagarri horiek Gobernu Batzarrak onartu ditu eta, zenbaitetan, Gizarte Kontseiluak, irakaskuntza eta ikerketa beharrak aintzat hartuta, Unibertsitatearen Erreformatarako Lege Organikoak ezartzen duenaren arabera.

Osagarri horiek ez dira inola ere legearen kontrakoak; areago, UPV/EHUko administrazio zerbitzuek ez dute inolako eskumenik horiek ordaintzearen inguruko erabakirik hartzeko. Hala, beraz, dagozkien langileei ordaindu egin behar dizkie, hala egin ezean, lege erantzukizunaren pean eroriko bailitzateke. Hortaz, baliogabeak direla ezartzen ez den artean, Unibertsitateak ordaindu egin behar ditu<sup>1</sup>.

### A.9 FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA

*“EHUK 2007ko ekitaldian maileguren kontzeptuan 2.023 mila euro erregistratu ditu Eusko Jaurlaritzak Inbertsioen Urteanitzeko Planaren obrak finantzatzeko urtekoari dagokionez izandako gehiegizko exekuzioagatik. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduak ezartzen du Unibertsitatea zorpetu ahal izango dela aurrekontuaren erabilgarritasuna Inbertsioen Urteanitzeko Planaren exekuzioaren garapenera egokitu ahal izateko. Nolanahi dela ere, ez da bestelako ekintzarik gauzatu inongo maileguren erabilerari dagokionez, eta honenbestez, ez da egokia zenbateko hau ez aurrekontuan, ez ondare kontabilitatean erregistratzea”.*

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari 2006-2011 aldirako Inbertsioen Urte Anitzeko Planaren gastuak nola justifikatu zaizkion ikusita, baita jasandako BEZ kengarriaren ondorioetarako nola aplikatu diren ere, 2007ko ekitaldian 2.022.552 euroko defizita izan da (hau da, urtekoari dagokion zenbatekoaren gaineko gastu gaidikina) eta 2008ko ekitaldian, aldiz, 8.039.816 eurokoa.

---

<sup>1</sup> Osagarri horiek ez dira Unibertsitatearen Erreforma Legean, ez Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoan, ezta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legean ere finkatzen; honela, bada, ordainsari hauen ondorioetarako, unibertsitateko irakasleriari buruzko 1086/1989 Errege Dekretua dago indarrean.



2008ko abenduaren 31n, bi erakundeek 10.062.368,69 euro mailegatzeko kontratua sinatu zuten, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2008ko abenduaren 30eko bileran baimena eman ondoren. Kontratuaren helburua aurrekontuan zegoena Inbertsioen Urte Anitzeko Planeko obrak burutzeko beharrezkora egokitzea zen.

Onartutako maileguaren zenbatekoak 2007 eta 2008ko ekitaldiei dagozkienak barne hartzen ditu.



## **ALEGACIONES QUE FORMULA LA UPV/EHU A LOS RESULTADOS DE LA FISCALIZACIÓN REFERIDOS AL EJERCICIO 2007**

En virtud de lo señalado en la Ley 1/88 del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea formula las alegaciones contenidas en este documento.

Antes de desarrollar el contenido de las alegaciones es preciso realizar algunas consideraciones para su mejor entendimiento.

Los procesos de mejora administrativa se dan necesariamente de forma progresiva y en el caso de la UPV/EHU el propio Tribunal de Cuentas ha colaborado activamente aportando numerosas sugerencias en sus informes, lo que ha permitido una valoración muy positiva de los avances observados sobre ejercicios precedentes.

La estructura organizativa de la Universidad en la que se suman como gestores económicos los Centros Académicos, Departamentos, Servicios, así como los encargados de los proyectos de investigación y los contratos, tiene como virtud disponer de un sistema muy descentralizado, lo que permite a los gestores, investigadores y promotores de proyectos disponer de herramientas ágiles y eficaces, pero, por el contrario, conlleva la dificultad del control y es en este punto donde mayor esfuerzo de normalización y homogeneización de procesos se ha realizado, lo cual viene siendo constatado por las auditorías externas.

A continuación se presentan las alegaciones siguiendo el orden del informe:

## **II. OPINIÓN**

### **II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD**

#### **Contratación (Ver A.14)**

4. *“En cuatro contratos adjudicados por procedimiento negociado sin publicidad por un importe de 376 miles de euros, se ha solicitado una única oferta, limitándose, así, de manera indebida, la exigencia de concurrencia prevista en el artículo 92 del Texto Refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas (en adelante TRLCAP)”.*

La LCAP no regula únicamente en este artículo los requisitos de concurrencia de los procedimientos negociados, sino que, además de señalar en este artículo 92 que se invitará a tres empresas, “siempre que ello sea posible”, recoge en diferentes artículos, las ocasiones en las que es posible invitar a una única empresa. Estas razones suelen ser de tipo técnico y en los expedientes de la UPV/EHU estas causas se recogen en las memorias.

5. *“En el expediente de contratación de “Servicios para la gestión integral de proyectos y obras del plurianual de inversiones 2006-2011 de la UPV/EHU”, con un presupuesto orientativo de 5.335 miles de euros, y adjudicado el 13 de febrero de*



*2007, no se ha realizado el informe del servicio de arquitectura y obras en el que se justifique la falta de adecuación o la conveniencia de no aplicación de los medios personales y materiales para cubrir las necesidades que trata de satisfacer el contrato, exigible conforme a lo dispuesto en el artículo 202 del TRLCAP”.*

El Rector de la UPV/EHU en memoria de 20 de octubre de 2006 es quien señala la insuficiencia de medios, habiéndose entendido justificación suficiente puesto que se contó con el previo asesoramiento de los servicios técnicos competentes de la Universidad.

*6 “La UPV/EHU, mediante tramitación anticipada y en un único expediente de contratación, licitó en el DOUE, el 3 de noviembre de 2007, la redacción de los proyectos y ejecución de las obras de construcción de los nuevos edificios de “E.U. Magisterio en Leioa, E. U. Ingeniería Técnica de Minas y de Obras Públicas y E.U. Ingeniería Técnica Industrial de Bilbao” con un presupuesto de 51.150 miles de euros. En este contrato y como parte del precio se incluye la adjudicación de los terrenos situados en la zona de la E.U. Magisterio en Deusto que se valoraban en 20.310 miles de euros, tras su recalificación por el Ayuntamiento de Bilbao a uso residencial, en cumplimiento de un convenio suscrito con la UPV/EHU el 19 de diciembre de 2006. El contrato se adjudicó el 11 de abril de 2008, al único licitador que concursó, por 51.145 miles de euros y con un plazo de ejecución de 28 meses. En la revisión del expediente hay que destacar los siguientes aspectos:*

- La licitación conjunta de la redacción del proyecto y la ejecución de las obras tiene carácter excepcional y debe justificarse suficientemente en el expediente conforme a lo dispuesto en el artículo 125 TRLCAP. El Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro, tras un recurso de reposición desestimado por la UPV/EHU, interpuso un recurso contencioso administrativo contra la aprobación de la licitación al entender que la licitación conjunta del proyecto y la ejecución de las obras no se ajustaba a las previsiones del TRLCAP. A la fecha de este informe el recurso se halla pendiente de resolución”.*

Consta memoria justificativa de tal excepcionalidad de fecha 31 de octubre de 2007 motivada por la envergadura del contrato, la necesidad de gestionar un sistema de pago diferente al ordinario y su gestión presupuestaria. La excepcionalidad se fundamenta en el hecho de que una parte del pago se efectuará en especie mediante la entrega de un solar. Ello hacía muy complicada la contratación independiente del contrato.

- “Por otro lado, la licitación del contrato se realizó sin que se hubiera culminado el desarrollo urbanístico del Plan Especial del Área Equipamental de San Mamés y sin que se hubieran concretado, por tanto, los aprovechamientos correspondientes a las parcelas sobre las que la UPV/EHU preveía construir los nuevos edificios de la E. U. Ingeniería Técnica de Minas y de Obras Públicas y E. U. Ingeniería Técnica*



*Industrial de Bilbao. Esta circunstancia ha provocado el retraso en la ejecución del contrato y no consta que la UPV/EHU haya realizado las actuaciones conducentes a la necesaria modificación del contrato”.*

El retraso en la ejecución del contrato se debe en gran medida a las modificaciones habidas en el Plan Especial del Área Equipamental de San Mamés, inicialmente aprobado el 29 de marzo de 2007, para ser modificado por el Ayuntamiento de Bilbao con posterioridad, y debido a causas totalmente ajenas a la UPV/EHU, tales como la consecución de la Fase I de Accesos a Bilbao.

Dicha circunstancia ha provocado, entre otras cuestiones, la modificación del contrato de referencia mediante Resolución de 11 de mayo de 2009.

### **III. CONSIDERACIONES SOBRE EL SISTEMA DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN**

#### **III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD**

*“La UPV/EHU ha presentado ante las Haciendas Forales en abril de 2009 declaraciones sustitutivas del impuesto sobre el valor añadido de los ejercicios 2001 a 2005, ambos incluidos, por un importe total a cobrar de 10.547 miles de euros, como consecuencia de la Sentencia del Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas de 6 de octubre de 2005, en relación con la deducción del impuesto sobre el valor añadido en las subvenciones, sin que a la fecha de este informe las Haciendas Forales se hayan pronunciado sobre estas liquidaciones.*

*Consideramos que el retraso de más de tres años en la presentación de estas liquidaciones, máxime teniendo en cuenta el importe reclamado, no está justificado”.*

En octubre de 2007 una vez efectuada la auditoría externa del ejercicio 2006 y contabilizados los ajustes propuestos, se presentó ante la Hacienda Foral de Bizkaia liquidación rectificativa del impuesto del valor añadido correspondiente al año 2006, incluyendo los criterios fijados en la Sentencia del Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas de 6 de octubre de 2005, así como la inclusión de la plena deducibilidad del IVA soportado en los programas relacionados con la investigación.

A lo largo del año 2008 la inspección tributaria ha evaluado la liquidación, analizando y comprobando la documentación pertinente. Finalmente, con fecha 21 de octubre de 2008 emitió Acta de conformidad y a lo largo del año 2009 se han ido materializando las devoluciones correspondientes al ejercicio 2006.

Una vez obtenida la conformidad de la Inspección, se procedió a presentar la liquidación rectificativa correspondiente al ejercicio 2007 en los mismos términos que para el ejercicio precedente.



Con fecha 14 de mayo de 2009 la inspección tributaria emite Acta de conformidad y con fecha 11 de junio de 2009 se ha recibido la primera devolución del importe adeudado relativo al año 2007.

Por lo que respecta a los ejercicios 2001 a 2005 se han presentado liquidaciones rectificativas en iguales términos que los señalados para los ejercicios 2006 y 2007, con las siguientes fechas:

- Hacienda Foral de Alava: 06-04-2009
- Hacienda Foral de Gipuzkoa: 03-04-2009
- Hacienda Foral de Bizkaia: 03-04-2009

Se ha iniciado la revisión de las mismas y se está a la espera de la respuesta correspondiente.

### III. 3 TRABAJOS DE CARÁCTER CIENTÍFICO, TÉCNICO Y ARTÍSTICO

#### Retribuciones del personal docente e investigador por estos contratos

*“El 18 de mayo de 1998, la Junta de Gobierno reguló las percepciones del profesorado por la realización de trabajos de carácter científico, técnico y artístico, estableciendo para cada contrato un límite a cobrar por cada profesor, que es imposible superar, en la medida en que todos los contratos tienen una retención del 12% para el Departamento y la Universidad, en su conjunto. Asimismo se establece un segundo límite, que consiste en que la cantidad anual a obtener por cada profesor universitario con cargo a estos contratos, no podrá exceder del 150% de la retribución anual que pudiera corresponder a la máxima categoría docente-académica en régimen de dedicación a tiempo completo por todos los conceptos del Real Decreto 1086/89. Este segundo límite, que en el ejercicio 2007 supone 128 miles de euros, no ha sido superado por ninguno de los profesores analizados. No obstante, la UPV/EHU no realiza ninguna comprobación de este límite, práctica que debería realizar de cara a garantizar su cumplimiento”.*

Si bien en el primer tramo del ejercicio 2007 no se efectuaba el control directo sobre las cuantías que el profesorado puede percibir por la realización de trabajos de carácter científico, técnico y artístico, en octubre de 2007 se estableció un procedimiento para garantizar el cumplimiento de los límites que la Junta de Gobierno, el 18 de mayo de 1998, estableció al respecto. Este procedimiento establece un único concepto contable desde el cual pueden cursarse las peticiones de pago a nómina (concepto 15020) y la asignación del crédito correspondiente en dicho concepto por la OTRI una vez recibida la solicitud y comprobados los límites establecidos en la Normativa de Contratos de la UPV/EHU.



## Retenciones por costes indirectos

*“La Junta de Gobierno, el 18 de mayo de 1998, reguló determinados aspectos de estos contratos en función de las competencias que le asignaban los Estatutos y estableció una retención del 5% del presupuesto total (una vez deducido el coste del inmovilizado material inventariable) para el Departamento o equivalente y un 7% para los gastos generales de la Universidad.*

*En el ejercicio 2007 se está reteniendo un 5% para la Oficina de Transferencia de Resultados de Investigación (OTRI), un 5% para el Departamento o equivalente y un 2% para Servicios Generales, salvo las excepciones que comentamos a continuación:*

- Los programas de Saiotek y Etortek corresponden a convocatorias públicas de subvenciones a fondo perdido realizadas por el Gobierno Vasco. A estos ingresos se les practican distintas retenciones que varían entre un 2% y un 15% para el Vicerrectorado de Investigación, sin que se justifique la aplicación de los diferentes porcentajes.*
- A los contratos suscritos por la Fundación Euskoiker se les retiene el 7% para Servicios Generales, quedándose la Fundación con el 5% restante”.*

Las retenciones establecidas por la Junta de Gobierno se refieren a los trabajos realizados bajo el amparo del artículo 83 de la LOU y el 315 de los estatutos de la UPV/EHU, por lo que no son de aplicación a los programas Saiotek y Etortek, tal y como ya se indicaba por parte del TVCP/HKEE en el informe de fiscalización del año 2005, por lo que no están sujetos a dicha normativa.

Las cantidades retenidas en estos programas se corresponden con las horas solicitadas de personal propio y que se ingresan, parte en la UGA de cada uno de los proyectos y, parte en la del Vicerrectorado de Investigación para cubrir los gastos generales del mismo. Estos últimos una vez finalizado el ejercicio no se incorporan al presupuesto del año siguiente, por lo que tienen la consideración de remanentes genéricos.

### III. 4 CONTRATACIÓN ADMINISTRATIVA

- “En cinco expedientes de obras adjudicados por un importe global de 15.799 miles de euros, no consta la aprobación por el órgano de contratación del proyecto de obras, con carácter previo a la tramitación del expediente de contratación y al replanteo de la obra”.*

Las resoluciones de aprobación de los expedientes de obras contienen la expresión “Aprobar el expediente, el presupuesto y el proyecto de la obra”. Si es el órgano de contratación quien



ostenta la máxima competencia, y esta resolución se dicta al inicio del expediente, queda suficientemente cumplida esta exigencia.

- *“En nueve expedientes tramitados de manera anticipada, y adjudicados por importe de 68.865 miles de euros, los pliegos de cláusulas administrativas particulares no incluyen el sometimiento de la adjudicación a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente”.*

La UPV/EHU incluye dentro de la Resolución de aprobación del contrato el sometimiento al procedimiento de tramitación anticipada, si bien no con la fórmula señalada por el Tribunal, que es la que al día de hoy se introduce por la Universidad en los contratos de estas características.

- *“En quince contratos adjudicados por 84.433, los criterios de adjudicación establecidos en los pliegos de cláusulas administrativas particulares son genéricos y no concretan la metodología a aplicar en el momento de la valoración de las proposiciones. Los pliegos deberían desarrollar los criterios genéricos para que los licitadores en el momento de la licitación puedan conocer cual va a ser su valoración concreta, con el fin garantizar adecuadamente la transparencia que preside la contratación pública”.*

La aplicación de los criterios de adjudicación a las proposiciones presentadas se realiza por una Comisión Técnica, nombrada para cada contrato de manera singularizada, y que garantiza la objetividad y correcta baremación de dichas proposiciones.

- *“En nueve expedientes de suministro adjudicados por un importe global de 4.651 miles de euros, los suministradores no firman las actas de recepción. Esta práctica debería corregirse porque su exigencia resulta adecuada y conveniente para dejar constancia formal de la realización la totalidad del objeto.”*

La UPV/EHU es una Administración Pública que contrata sobre todo expedientes de suministros con empresas no radicadas en el País Vasco, incluso fuera de España. Resulta antieconómico solicitar la presencia de los representantes de las empresas en el momento de la firma de las actas de recepción, por lo que se ha optado en aras de una mayor eficacia, por enviar a las empresas un original de las actas de recepción con envío mediante acuse de recibo. En el supuesto de que las empresas no efectúen reclamación alguna, se da por válida su aceptación tácita. De hecho, esto queda constatado con el envío de las facturas tras la recepción de dicho ejemplar de acta. Imponer a empresas de toda España, de Alemania, Francia, EEUU, Inglaterra, etc, que envíen un representante a firmar las actas de recepción



sería inasumible para ellas salvo un cobro de los gastos de desplazamiento, cosa que supondría un encarecimiento de los contratos para la UPV/EHU.

En los contratos de obras por el contrario, como suele haber un representante a pie de obra siempre se firman las actas por las empresas. En los contratos de servicios no se establece esta obligatoriedad. Esta circunstancia formal queda subsanada por el acta de aprobación de los servicios contratados y la inmediata cancelación de las fianzas tras la recepción de este documento en el Servicio de Contratación.

## Adquisición de bienes y servicios por las UGAs

*“Consideramos que la UPV/EHU debe establecer un protocolo para la adquisición de productos y servicios por las UGAs, en el que se definan los productos homogéneos y su adquisición centralizada, cuando proceda, a efectos del cumplimiento de la normativa de contratación administrativa”.*

La UPV/EHU lleva tiempo corrigiendo esta deficiencia pudiendo constatarse en expedientes posteriores de homologación tanto de suministros como de servicios. Así, a título de ejemplo. Mobiliario de laboratorios, mobiliario de oficinas, mobiliario de aulas, equipamiento informático, agencias de viajes, obras de importe inferior a 60.000 euros, mantenimiento de instalaciones, mantenimiento de equipamiento científico, ...

## ANEXOS

### A.3 GASTOS DE PERSONAL

#### Otras retribuciones

*“La Universidad abona complementos y equiparaciones retributivas, no regulados por el Real Decreto 1086/1989, de 28 de agosto, sobre retribuciones del profesorado universitario. Estos complementos han supuesto un gasto en el ejercicio 2007 de 6.128 miles de euros”.*

Se trata de complementos que han sido aprobados por Junta de Gobierno y, en algunos casos, por el Consejo Social, atendiendo a exigencias docentes e investigadoras tal y como establece la LORU.

Dichos complementos no adolecen de ilegalidad alguna y además, los servicios administrativos de la UPV/EHU no tienen competencia para decidir sobre el pago de los mismos, teniendo la obligación de satisfacerlos al personal afectado, pues en caso contrario,



incurriría en responsabilidad legal. Por consiguiente, mientras no se establezca la nulidad de los mismos, la Universidad está obligada a satisfacer<sup>1</sup>.

## A.9 VARIACIÓN DE PASIVOS FINANCIEROS

*“La UPV/EHU ha registrado en el ejercicio 2007 en concepto de préstamo 2.023 miles de euros por el exceso de ejecución en relación con la anualidad de financiación por parte del Gobierno Vasco de la obras del Plan Plurianual de Inversiones. La Orden de 11 de julio de 2007 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación establece que la Universidad podrá endeudarse con el objeto de adecuar las disponibilidades presupuestarias a la evolución de la ejecución del Plan Plurianual de Inversiones. No obstante, no se ha producido ningún acto en relación con la disposición de ningún préstamo, por lo que no procede el registro de este importe ni en presupuesto ni en la contabilidad patrimonial”.*

Tal como se ha justificado al Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco los gastos correspondientes al Plan Plurianual de Inversiones 2006-2011 y aplicado al efecto del IVA soportado deducible, en el ejercicio 2007 se ha producido un déficit (exceso de gasto sobre el importe de la anualidad) de 2.022.552 euros y en el ejercicio 2008 de 8.039.816 euros.

Con fecha 31 de diciembre de 2008 ambas instituciones suscribieron un contrato de préstamo, autorizado por el Consejo de Gobierno del Gobierno Vasco en su reunión de 30 de diciembre de 2008 por un importe de 10.062.368,69 euros, con objeto de adecuar las disponibilidades presupuestarias al grado de ejecución de las obras del Plan Plurianual de Inversiones.

El importe del préstamo concedido incluye los importes correspondientes a los ejercicios 2007 y 2008.

---

<sup>1</sup> Estos complementos no se fijan ni en la Ley de Reforma Universitaria, ni en la Ley Orgánica 6/2001, de Universidades y tampoco en la Ley 3/2004, del Sistema Universitario Vasco, permaneciendo vigente a los efectos de estas retribuciones, el Real Decreto 1086/1989, sobre retribuciones del profesorado universitario.